

SECCION AMENA.




NESKA ZAR BATI.



—¿Langost'au freskua da?
 —¿Freskua? bai jauna;
 ¿nola ez langosta bat
 biziya daguana?
 —¿Biziya daguelako?
 ¡zer arritzekua!
 zure biziya zaude
 bañan ez freskua.



ECHEKOANDRIA TA NESKACHA.



—¿Zerbait autsi dezu zuk?
 —Bai echekoandria,
 bañan suertiakiñ
 autsi det andria;
 plater bat bi pusketan.
 —¿Ta ori suertia?
 —Bai, ¡ez daki zer lana
 dan puskak biltzia!

MARZELINO SOROA.

